



Leitzako Udalak ikurrina kendu du udaletxetik «gogoz kontra»

LEGEA ▶ Nafarroako Ikurren Legea betetzea eskatu dio auzitegiak eta atzo amaitzen zen epea

ERABAKIA ▶ Ez bada betetzen alkatea inhabilitatuko dutela dio erabakiak; horregatik bete dute ▶ 7



Leitzako udaletxea atzo goizean, ikurriña falta dela herriko eta Nafarroako banderen artean. JAIONE ASTIBIA

TOLOSALDEA ▶

Eskubideen «urraketa» salatu dute 18/98 auziko inputatuek

Eskualdeko zazpi lagun daude inputatuta makrosumarioan ▶ 4



Mikel Egibar eta Nekane Txapartegi inputatuak kartelarekin. I.GARCIA

TOLOSA ▶

Instituzioak «ziria sartzen» ari direla diote

Gerontologikoan leku aldaketak «drama» direla diote ▶ 3

LEIRE OLABERRIA ▶
TXIRRINDULARIA



NOELIA LATABURU

«Ilusioa berreskuratu izanak poztu nau gehien»

Ikaztegietak sari garrantzitsuak lortu ditu pistan ▶ 5

IBARRA ▶

Arauk aurkeztu dituzte ▶ 6

AZOKA ▶



Iazko Zuhaitz Eguna; 16 erakusle eta Fraisoreen postua izango dira aurten. o. ESKITXABEL



Biga Enkantea, iaz, Ferialekuan; arrazako 47 abelburu izango dira bihar enkantean. o. e.

Tolosa, abelbururik eta landararik onenen topaleku

Bihar goizean X. Zuhaitz Eguna egingo dute Trianguloan, eta III. Biga Enkantea Ferialekuan; ikasleek eta herritarrek zuhaixkak landatzeko aukera izango dute

LEIRE MONTES

Inauteri garaian ziren egitekoak, baina festengatik atzeratu egin zituzten azoka berezi hauek. Bihar izango dira azkenean: X. Zuhaitz Egunerako eta III. Biga Enkanterako dena prest da.

Trianguloak hartuko du aurtengo Zuhaitz Eguna, hamargarrena. Udaleko Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu departamenduko arduradunek adierazi dutenez, «ikusmin handia sortu du azokak, berrikuntzengatik eta parte hartuko duten 16 erakuslerengatik».

«Aipamen berezia» egin die larunbatero Atadi kalean egoten diren mintegiei. Horie-

tako batzuk, gainera, astelehentean ere egoten dira Ferialekuan: Arakama mintegia (Zegama), Dorronsorero (Ataun), Garitonandia (Zaldibar), Lasa (Albiztur), Mendia (Beasain), eta Urkizu (Anoeta).

«Negu honetan dugun kontrako klimatologiak landatze prozesua nabarmenki atzeratu du. Normalean azaroa eta martxoaren erdialde bitartean egiten da landatzea, baina aurten jarraian izan diren elurteen ondorioz, prozesua erabat atzeratu da. Dena den, biharko azokan erosleek zuzenean galdetu ahal izango diete mintegietako saltzaileei aurten jarraitu beharreko ildoei buruz», azaldu dute departamendukoak.

Erakusleez gain, Fraisoro Nekazaritza Eskolak informazio zerbitzua jarriko du Trianguloan. Azokara joaten den jendeari zalantzak argituko diote bertan. «Postuaren erdian enbor bat jarriko dute, zerraketa komertzialaren despizea erakusteko». Gainera, argazki erakusketa ere jarriko dute ikusgai, Mendikoi ikastaroetan erabiltzen ari den basogintzako simulagailuari buruzkoa: «Ikasleak, era birtualean, basogintzako lanak ikasi dituzte; besteak beste, basamozketa, soilketa, eta trontzaketa». Eskolako Heziketa Zikloei buruzko argazki erakusketa ere jarriko dute, eta umeei arte txikiak banatuko dizkiete.

Herritarrei deia

Baina Trianguloa ez da izango Zuhaitz Eguna hartuko duen herriko txoko bakarra. Zuloaga Txikiko ingurumen eskolaren ekimenez, herriko hainbat parke eta lorategitan ikastetxeetako ikasleek zuhaitzak eta zuhaixkak landatuko dituzte. «Ekintza honek kutsu sinboliko handia du; gainera, aldatutako landareekin lotura afektibo izaten du gaztetxoak». Gainera, Udaleko Ingurumen departamenduak Izaskun azokako bizilagunei herritarrei oro har landatze saioetan parte hartzeko gonbita egin die.

Bihar, azoka egunean bertan, hesi akustiko bat landatuko dute ikasleek eta herritarrek Izaskun auzoan. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak 10:00etan daude deituta. Zabalarretan: «Bi orduetan, taldekan banaturik, tailerrak, jokoak eta landaketak egingo dituzte. Eta, bukaeran, landare bana emango zaie parte-hartzaile guztiei». Herritarrak, bestalde, 12:00etan dute hitzordua, landaketa gunean. Amaitzerakoan, auzoko elkartera joango dira guztiak, salda hartzera.

Biharko egunaz gain, hilaren 28tik martxoaren 4ra bitartean, Zuhaitz Astea antolatuko du Ingurumen departamenduak. Aste horretan, herriko ikastetxe guztiak landaketak egingo dituzte: Bidebietan, hezi akustikoarekin amaituko dute; Lasakorain ikastolan, aurrealdean dagoen pasealekuan gerezion-

HITZORDUAK ▶

X. ZUHAITZ EGUNA

Azoka. Bihar, goiz guztian, Trianguloan.

Landaketak.

▶ Ikastetxeetako LHko 5.

eta 6. mailako ikasleak: bihar, 10:00etan, Zabalarretan.

▶ Izaskun auzoko bizilagunak eta herritarrak oro har: bihar, 12:00etan, landatze gunean.

Zuhaitz Astea. Hilaren 28tik martxoaren 4ra. Herriko ikastetxeetako ikasleek landaketak egingo dituzte.

II. BIGA ENKANTEA

Ferialekua. Bihar, 11:30ean.

doak eta orain arte egon diren tamarindoak aldatuko dituzte; eta Zuloaga Txikin, azkenik, trenbide aurreko hesiaren zati bat egingo dute. Horretaz guztiaz gain, Tolosako zuhaitz handienak eta zaharrenak ezagutzeko ibilaldiak ere egingo dituzte.

Arraza onenak, enkantean

Beste hitzordu bat ere izango du Tolosak bihar. Ferialekuan, aurten hirugarrenez, Biga Enkantea egingo dute, 11:30etik aurrera.

Ganaduzale elkarteek antolatuko dute enkantea, hain zuzen ere, kalitatearen eta ekoi-zerpenaren aldetik haragitarako eta esnetako abelburu arraza onen ganaduzaleek. Guztira, 47 buru ikusi ahal izango dira Ferialekuan: 10 friso arrazakoak, 28 pirenaiakoak, 8 limusina eta blonda arrazakoak.

«Gipuzkoako ganaduzale kalitatea hobetzea» da Tolosako Udalaren eta Foru Aldundia diaren asmoa, ganadua erostegatik subentzioak emanez. Frisoia, pirenaiak, limusina eta blonda arrazak jasotzen dituzte diru laguntzak: buruko 210 eta 150 euro bitartean.

Larunbata 26
azokabereziak

X. ZUHAITZ EGUNA
Trianguloan (8:30etatik aurrera)
Enbora, argazki-erakusketa,
Arte eta urkien adaxiak banatuko dira.

Euzkadi
Euzkadi

III. BIGA ENKANTEA
Ferialekuan (11:30 etan)

GERONTOLOGIKOA ▶



Gerontologikoan bertan egin zuten bilera erabiltzaileen senideek. I. GARCIA

Instituzioak «ziria sartzen» ari zaizkiela salatu dute senideek

Gerontologikoko erabiltzaileen senideek erresidenteen lekualdaketak suposatzen duen drama azaldu dute

IMANOL GARCIA

Tolosako Gerontologikoaren erabiltzaileen senideek instituzioen jarrera salatu eta Foru Aldundia eta Tolosako Udala «ziria sartzen» ari zaizkiela iritzi zioten herenegun arratsaldean egindako bilera batean. Gerontologikoan dituzten senideen egoerari «irtenbide egokia» ez bazaie ematen, neurriak hartzeko prest daudela azaldu zuten. «Tolosako zentroan dauden baldintza berdinak ez bazaizkie bermatzen erresidente eta eguneko zentroan daudenei», Gerontologikoaren aurrean protestaldiak egiteko asmoa erakutsi zuten senideetako batzuek.

Senideek haserrea azaldu zuten instituzioek hartutako neurriak eta egindako gestioen aurrean. «Gerontologikoa itxi egin behar zutenaren zurrumurrua izan genuen eta Udalarekin bilera eskatu genuen. Baina alkateak esan zigun ez zuela horren inguruan berririk. Foru Aldundira joan ginen Esther Larrañaga Gizarte Politikako diputatuarekin elkarrizketatzera. Berak esan zigun ez zegoen erabakirik hartuta eta gerontologiko guztiaren azterketa egiten ari ziren. Hilabete eta erdira beste bilera eskatu genuen itxieraren zu-

rumurruak indarra hartzen ari zelako eta urtarilarren 17rako deitu ziguten Aldunditik. 15:30ean egin genuen bilera eta arratsalde horretan egin zuten erabakia hartu zeneko bilkura. Adarra jo digute eta ez digute aintzat hartu ezertaradako, kexatu ziren senideek.

Gerontologikoaren itxieraren aurka sinadura bilketa egin dute senideek eskualdeko udal ezberdinetan aurkezteko. Atzo, Arartekoarengana joan ziren sinadurak aurkezteko.

Lekualdatzearen drama

Tolosako alkatearekin aste honetan egindako azken bilera berri eman zuten senideek. «Adarra jotzen ari zaigu», azaldu zuten alkatearekin bilera egindako senideek. «Orain lurramendiko egoitzan 26 plaza daudela esan digu. Hasiera batean 10 plaza bakarrik zeuden eta orain, ez dakigu nola, plaza horiek ugaritu egin dira».

Iurramendi egiteko zeuden obrak «gelditu egingo direla» azaldu zuten senideek. «Alkatetari galdetu diogu, orduan, zer gertatuko den obra horiek hasten direnean. Zer gertatuko da bertara eramandako edadetuekin? Gela batean zenbat sartuko dituzte orduan?», azal-

du zuten senideek eta galderei alkateak ez ziela erantzunik ematen zehaztu zuten.

Gerontologikoan zeuden 64 erresidenteetatik erdia inguru lekuz aldatu dituzte dagoeneko. Tolosako San Cosme y San Damianera, Miramongo egoitzara, Zizurkilgo Fraisorora, Villabonara eraman dituzte, besteak beste. «Sekulako drama izaten ari da», azaldu zuten bere izeba lekuz aldatu zuten senide batek. «Ez dituzte zaintzaileak ezagutzen, ez dute zentro berriaren giroa ezagutzen, galduta sentitzen dira. Aldundiko arduradunak jarriko nituzke lekualdaketa guztiak banan-banan ikustean».

Erresidente batzuk urteak daramatzate Euskal Herria plazako Gerontologikoan —batenbat 18 urte— eta «bere etxea dela sentitzen dute. Edate horretan etxetik atera eta leku arrotz batera eramatea hilzorian jartzen da», azaldu zuten senideek.

Bestalde, eguneko zentroan dauden 100 edadetu inguru erresidenteetara buruz ere «oso kezkatuta» azaldu ziren senideak. «Aukera bakarra Jesusen Zerbitzarien zentroa eramatea da, baina ez dute asteburutan irekitzen. Zer egin behar dugu orduan?», kexatu zuten senideetako bat.

KULTURA ▶

‘Xomorroak’ antzezlanaren eskainiko dute Leidorren

Anartz Zuazua da proiektuaren zuzendaria; bihar, 17:00etan hasiko da haur ikuskizuna



Xomorroak antzezlanaren eskainiko dute bihar Leidor aretoan. HITZA

IRATXE ETXEBESTE

Roberto Alaia, Portuko Galaia, tangoak abesten dituen kilkerria da. Krisia dela eta, Buenos Airesetik alde egin behar izan du. Carla eulitxo jaioberriak ezin du bere ama aurkitu. Horiexek dira *Xomorroak (bizitza lorontzian)* istorioaren protagonistak. Beraz, bilaketa baten istorioa da, Carlaren amaren bilaketaren istorioa. Baina lorontzi bateko biztanleen eta bertatik bertatik pasatzen diren bidaiarien istorioa ere bada: barre eta negar egiten duten xomorroak, haserre dauden xomorroak, xomorro maltzurak, xomorro beldurtiak, pittoa duten amak, erreportari ditxolariak... xomorro ilegalak? Denak ere kantari bikainak eta dantzari hobeak, bizitza askoz ederragoa baita musikaz jantzia. Lortuko ote du Carlak, Robertoren laguntzarekin, bere ama aurkitzea? Eta besteak, betekote dituzte beren ametsak? Izan ere, jainko mardikatu horiek, mamutoek, xomorroen bizimodu bake-tsua korapilatu besterik ez baitute egiten. Azken batean, *Xomorroak* erreala da, bizitza

bera bezalakoa. Bizitza bezalakoa? Lorontzi bateko bizitza bezalakoa.

Anartz Zuazua zuzentzen duen *Xomorroak* antzezlaneko sinopsia duzue hori. Bihar, 17:00etatik aurrera eskainiko dute emanaldia Leidor zinema aretoan, eta izatez haurrei zuzenduta badago ere, helduentzat ere aproposa dela diote ekizileek. Sarrerak salgai dira Kultur Etxean 5 eurotan, eta bihar leihatlan ere jarriko dituzte salgai.

Aitor Gabilondo, Itziar Urretabizkaia, Asier Sota eta Aitziber Garmendia dira *Xomorroak* antzezlanean parte hartzen duten aktoreak. Horiez gain, lan talde bikaina bildu du Zuazua egitasmoa gauzatzeko. Musika Fermin Muguruzarena da, atrezooak, eszenografiak eta jantzien diseinuak Joan Miquel Reig arduratu da, Carlos Ngemak egin ditu ko-reografiak, Ritxi Lizartzak itzulpenak, Carlos Salaberri da argiez arduratzen dena, argazkien ardura Jose Ignacio Hernandez Larbururi eman dio Zuazua eta tekniko lanean Carlos Salaberri eta Beñat Gantxegi aritzen dira, besteak beste.

iragarki laburrak ▶

LANA
Etxeko lanak. Legorretarako andre bat behar da etxeko lanak egiteko eta haurra zaintzeko. 609 16 16 35 telefono zenbakira deitu.
Sukaldaria eta tabernaria.
Sukaldaria eta tabernaria behar dira. Deitu 15:00etatik aurrera. 943 68 21 54.
Sukaldaria. Sukaldari bat behar da

asteburuetarako. Deitu telefono zenbaki honetara: 635 700 559.
Zaintzailea. Emakume bat behar dugu Anoetan haurrak zaintzeko. 943 65 00 32.

ALOKAIRUAN
Garaje itxia. Lurre auzoan garaje itxia alokatzen da. 609 43 59 07 edo 665 75 87 74.

18/98 AUZIA ▶

IMANOL GARCIA

Manifestazioa egingo da bihar Bilbon, 17:30ean hasita La Casillatik, 18/98 auziko inputatuei elkartasuna adierazi eta auzian «urratutako eskubide zibilak eta politikoak aldarrikatzeko». 18/98+ lan taldeak deitu zuen manifestazioa pasa den larunbatean Kursaallean egindako batzar jendetsuan. Auzian inputatutako batzuk eta sumarioarengatik kezkatutako norbanakoek osatzen dute lan taldea. Eskualdean zazpi inputatu daude makrosumarioran: Mikel Egibar zizurkildarra, Nekane Txapartegi asteasuarra, Julen Zelarain billabonatarra, Jose Mari Olarra, Jokin Gorostidi, Mario Zubiaga eta Martxelo Otamendi tolosarrak.

Mikel Egibarrekin eta Nekane Txapartegirekin izan da HRTZA, 18/98 makrosumarioran berri jasotzeko: «Orain hamar bat urte eraikuntza nazionalaren bidetik dinamika berri bat sortu zen Euskal Herrian. Naziotasunari zein erabakitzeke jabetzari garrantzi handia eman zitzaion. Horrela erreprezioaren erantzunetik gure herria eraikitzeke ekimen zehatzak egitera pasatu ginen». Honen aurrean, Estatuaren erantzuna «kriminalizazioaren bidea» izan zen, Egibar eta Txapartegi azaltzen dutenez: «Kriminalizazio bide horren bitartez ez ziren mugatu pertsonak atxilotzera eta erakundeak ilegalizatzeraz. Estatu espainolak Guardia Zibila baliatuz tesi berri bat asmatu zuen Euskal Herrian eraikuntza nazionala-



Mikel Egibar eta Nekane Txapartegi, manifestazioarako deia egiten duen txartela atzean dutela. I. GARCIA

Eskubide politiko eta zibilen «urraketa» salatzen dute inputatuek

Makrosumarioran inputatuei elkartasuna adierazteko, manifestazioarako deialdia egin du 18/98+ lan taldeak

ren inguruan sortu zen dinamika berriari aurre egiteko. Tesi honen arabera dena ETA da, hori da sumario guztia oinarri juridiko-politikoak.

«Inputazioak asmaketan oinarritzen dira», azaltzen dute. «Instrukzioa asmatutako inputazio horiek torturaren bitartez, atxilotuen ahoan jarriz, osatu da eta horrela aurrera

eramango dute berma juridikoz duen epaiketa».

Sumario guztietan nabarmentzen den lehenengo ezaugarria «persona batzuei eskubide politiko eta zibilak ukatu nahi zaizkiela da», azaltzen dute bi inputatuek. Ideologia bat izateko eskubidea, antolatzekoarena, biltzekoarena, desobedienciaarena eta horren

baitan intsumisioaren eskubidea aipatzen dituzte «Estatuak ukatu» dituztenen artean.

18/98 auziaren epaiketa oraindik ez dago zehaztuta noiz izango den. «Baina Jarraila-Haika-Segi sumarioan auzipeatuak dauden gazteen aurkako epaiketa hartzen ari den farsa itxura ikusirik, epaiketa

hauek zigor politikoa izatea asmoa dute», azaltzen dute Egibarrek eta Txapartegik.

Makrosumarioran baita, Jarraila-Haika-Segiren auzia da egun Espainiako Auzientzia Nazionalean epaitzen ari direna. Egibar eta Txapartegi epaiketa honetako bi ezaugarri azpimarratzen dituzte: «Gazte horien tinkotasun politikoa eta nola epaiketa horren aurrean beraien eskubide politiko eta zibilak berresten dituzten bere militantzia aldarrikatuz. Tinkotasun hori eredu garri bihurtzen da Euskal Herrian. Bestalde Estatuak hartu duen bidea, berea den instrumentu baten bitartez, hau da, Auzientzia Nazionalea. Horrelako jarrerak zigortzeko bidea hartu du eta oso nabarmena da eskaera fiskalak duen larritasuna. Europa mailan Turkiarekin konparatu daiteke, non bapatean asmatutako inputazio batekin, hau da, integrazioa deritzona, ari dira eskatzen hamar, hamalau, hogeita hamar eta batzuetan ehun eta gehiago urte».

Horrez gain, makrosumarioran hurrengo epaiketetan gertatuko dena aurreikusitako deialdia azaltzen dute: «Auzipeatuek dituzten berme juridiko gutxi eta alde zuzenetik Estatuak finkatuak dituen zigor batzuk, jarrera politiko eta ideologikoren kontra».

Egibar eta Txapartegi bihar Bilbon egingo den manifestazioa joateko deialdia egiten dute eta jendeari, informatu ez ezik, inplikatzeko ere eskatzen diote.



Villabona - Kultura

— MUSIKA —

Mikel Markez

'ERABIL NAZAZU'

Otsailak 25 ostirala • gaueko 22:30ean

GUREA ARETOAN



Udal Kultura Batzordea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal Kantagintza



Alkartasunako tute bikotea eskualde-arte txapelketara

ANOETA ▶ Urnietan jokaturako eskualdeko txapelketan Anoetako Alkartasuna biltokiko Laureano de Arribak eta Ignacio Amonarizek —argazkian oroigarriekin, erdian Manuel Odriozola lehendakariarekin— osatutako bikoteak tutean txapela lortu zuten. Horrela, datorren martxoaren 4an, Beasainera joango dira eskualde-arte txapelketan parte hartzera. Bestalde, txinton jokoan Anoetako bikoteak —Pepi Gaston eta Marisol Zinkunegi— bakarrik izena eman zenez, hauek ordezkaturako dute Tolosaldea Beasainen jokaturako den txapelketan. I. GARCIA

LEIRE OLABERRIA ▶ TXIRRINDULARIA



NOELIA LATABURU

«Txirrindularitzan hastean ilusioa berreskuratu izanak poztu ninduen gehien»

Duela urtebete eta bost hilabete baino ez zen hasi pistan eta jada sari garrantzitsuak eskuratu ditu Ikaztegiakoak

NOELIA LATABURU

Kirolari hertsiki loturiko bizitza darama Leire Olaberriak, 28 urteko ikaztegiatar gazteak. Bere burua «dinamikotzat» definitzen du; arrazoirik ez zaio falta, behinik behin. Turismo karrera egina, majisteritza ikasketak burutzen ari da, Txuri Urdin izotz jauregian patina-jea eta *spinning*-a irakasten du eta egunero entrenatzeko tartea ere ateratzen du. Ibilbide profesionalari eta bestelako buruz jardun du HIRZAREKIN.

Bordeleko pistako abiadura txapelketa irabazi duzu.

Oso pozgarria izan da niretzat, izan ere Frantzia maila handia dute. Aurreko urtean hirugarren egin nuen, eta oso onak zirela iruditu zitzaizkidan. Helburu finkorik gabe hasi nintzen, baina garaipenak iristen ari dira eta oso motibatuta nago.

Aurretik atletismoan aritu zara. Nola etorri da aldaketa? Atletismoan 16 urte nituela hasi nintzen. Oso ondo aritzen nintzen, baina ahal nuenean ez nuen dena ematen eta bukaeran, lesioak zirela-eta ezin nuela, orduan dena eman nahi nuen. Korrika egiteari utzi nioenean nire mutilak txirrindulari-

tzan hasteko konbenzitu ninduen. Orduarte buru-belarri atletismoan egin nuen. Egia esan, kirol honetan hastean ilusioa berreskuratu izana poztu nau gehien.

Zenbat garaipen eskuratu duzu dagoeneko?

Duela urtebete eta bost hilabete hasi nintzen eta Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiko txapelketak irabazi nituen, besteak beste. Aurten, berriz Gipuzkoako Txapelketa eta Bordeleko irabazi ditut. Besteak korritzeko daude.

Zure bizitzan kirolak pisu handia du, beraz.

Txiki-txikitatik dena suposatu du kirolak niretzat. Kirol gehienak ditut gogoko eta oso orotzapez politikak ditut kirolaren gainean. Batez ere, egin ditudan lagunak eta pertsonalki lortu dudana guztia.

Nolakoak dira zure entrenamenduak?

Egunero bi ordu inguru egiten ditut entrenatzen. Egun batean gimnasioa, beste batean errepidera irteten naiz eta gainontzekoetan pistan egiten dut. Askotan mutilekin entrenatzen dut eta hau onuragarria gerora nesken aurka aritzea erreza-goa suertatzen baitzait. Dena

den, txirrindulari mundua nahiko matxista da zentzu horretan.

Kirolari bezala zure ametsak bete al dituzu?

Kirolari oro bezalaxe, olimpiada batzuetara ailegatzea dut ametsa eta aurten Europako Txapelketa joateko hautatua izatea, baina oraingoz, oso pozik nago lortutakoarekin.

ABALTZISKETA ▶

Igandean hitzaldia adinekoentzat

Hurkoak iganderako adineko pertsoneri zuzendutako hitzaldia antolatu du Abaltzisketako udaletxeko aretoan, 11:00etan. Moira Zeberio psikologa izango da mintzalaria eta gaia *Komunikazioa eta adiskidetasuna: bizimodu osasuntsurako giltzarriak* izango da. Jardunaldiaren helburua ariketa fisiko eta mentalarekin eta komunikazioarekin lotuta dauden funtsezko ohitura batzuk ezagutaraztea da, ongizate maila eta bizi kalitate hobea lortzen laguntzeko. Jorratuko diren gaiak, besteak beste, hauek izango dira: elikadura, ariketa eta aisia, higieena, burura trebatzea, aktibo izatea, komunikazioa eta adiskidetasun. Norbaitek garraiorik ez badu, bertara gerturatzeko dei dezala 943 46 89 56 zenbakira.

ALEGIA ▶

Dantza taldearen bilera astelehenean

Euskal dantza ikastaroetarako bilera antolatu dute astelehenean. Jadanik talde polita osatu da Alegia eta arratsaldeko 19:30ean elkartuko dira Kultur Etxean lehen bilera bat egiteko. Bertan oinarriko erabakiak hartuko dituzte, hala nola ikastaroaren egunak, ordutegia, eta beste-lako xehetasunak. Izena eman dutenez gain beste edozein ere azal daitezke bilera, epea oraindik ez baita go itxita eta, gainera, bilera irekia izango da.

ALEGIA ▶

Odola emateko aukera gaur 19:00etatik aurrera

Sendagilearen Etxean jarriko dute postua eta bi orduz ariko dira bertan



Odola ematen, iaz. HITZA

N. LATABURU

Gipuzkoako odol emaleen elkarteak Alegian antolatu du gaurko odol emateko gunea. Sendagilearen Etxean izango dira arratsaldeko 19:00etatik aurrera, bi orduz.

Urtean hirutan igarotzen da elkarte hau Alegiatik. Gaurkoa lehenengoa da, ekaina partean bigarrena eta urrikoa izaten da azken bisita. Iaz jende asko animatu zen odola ematera, izan ere 120 lagun inguru hurbildu ziren sendagilearen etxera. Aurtengoan ere biztanle guztiak animatu nahi dituzte eta gaur odola emateko deialdia luzatzen diete.

SORKUN
ZUZENDARITZA

MAKALA
ZUZENDARITZA

OREKA EX
ZUZENDARITZA

FUN-ESAK
ZUZENDARITZA

BLANI
ZUZENDARITZA

BERTSOLARIK
ZUZENDARITZA

BREAK-DANTZARIK
ZUZENDARITZA

LEIOA CAMPUS
ZUZENDARITZA

3
PARTIDOKO

11:30
OSTIRALA

TXOU!!

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03**Berastegi-Elduain.** Medikua:
68 33 61**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Lizartza.** Medikua: 68 20 77**Orendain.** Medikua: 65 55 95**Orexa.** Medikua: 68 22 28**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -
67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930**GARRAIOAK**

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK**Gaur.** Olarreaga, A. Korreo kalea

2 (Tolosa). 943 67 01 28.

Erbiti O. Lizarraga 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA**Publizitatea.** 661 67 88 18.tolosaldean_publi@tolosaldeko
hitza.info**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldekohitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.villabona-aiztondo@tolosaldeko
hitza.info**Anoetaldea.** 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldekohitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldekohitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldekohitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldekohitza.info

IBARRA ▶ GIZARTEA

Arau subsidiarioen dokumentua aurkeztu dute jendaurrean

Aurreko legealdian «defizit handia sortu zela eta herriaren kalitatea handitzeko ez zela inbertsiorik egin», dio Udalak

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarrako udalerrriaren planeamenduaren arau subsidiarioen dokumentuko proposamena jaso da Ibarrako udaletxean, hasierako onespina eman eta jendaurrean jartzeko, aztertutako iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten.

Rafael Poza, Javier Telleria eta M. Mar Sanchez arkitektoek eta Pilar del Valleren aholkularitza juridikoak egin duten dokumentuan datozen 8-10 urteetan udalerrira orekatua zehazteko abiapuntua ezartzen da. Hau egiteko oinarri izan dira Mikel Garaialdek egindako gizarte eta hirigintza arloko azterketa, ingurune fisikoaren azterketa (Ohain S.L.), ingurumenaren gaineko eragina (Hagimpe), azterketa arkeologikoa (Aranzadi) eta azterketa geologiko geoteknikoa Sokoa (Geotecnia). Halaber, Ibarra-Tolosako planeamendu irizpideak



Luis Ignacio Alonso, Chelo Romeo eta Pello Aseginolaza. HITZA

Lurralde Antolamenduko Gidalerroetako zehaztapenekin bat datozenak.

Udalaren helburuen artean honakoak daude: plaza nagusiaren ondoko hirigunea sustatzea, Zelai ibaia berreskuratzea lorategi-guneak eginez, herriaren erdialdean ingurune aberats eta anitza sortzea, gune berdeak sortzea, ekipamendu publikoko lursailak sortzea, antolamendu berriek erasaten ez dituzten eraikinak sendotzea, bizileku-zorua gai-

tzea, lurzoru-gune urbanizagarria gaitzea industria eta ekonomia jardueretarako, landa-lurrrak antolatu eta hobetzea, balio natural, ekologiko eta paisaia-arlokoak bermatzea hobetzeko, komunikazio sarea antolatzea, saihesbidea, udal bide-sarea, eta bide txikiagoak egokitzea paseo eta bidegorrietarako, ondare historikoa, arkitektonikoa eta arkeologikoa eta abar babesteko araudi orokorra ezartzea.

Hiri-lurzoruan dauden etxe-

bizitzen kopurua honakoa da: 448 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 181 etxebizitza; lurzoru urbanizagarrian, 122 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 24 etxebizitza zehazten dira. Etxebizitzak guztira 751 izango lirateke, horietatik 205 babes ofizialekoak, eta Udalarik emandako %10ekin guztira %37 dirababes ofizialekoak.

Bestalde, arauen berrikuspen honen arrazoiak honakoa da: «aurreko arau subsidiarioetan 1991etik 2001a bitartean egiteko aurreikusitako etxebizitzak %90 inguru garatu direla, eta udal kudeaketa on batean aurreko Sozialista Abertzaleen korporazioak sustatuak izan behar zutela, eta bertan begietsitako aurreikuspen guztiak egiten bukatua» azaltzen du Udalak. Baina ez zela horrela izan dio, «izan ere errazagoa zen gastua handitzera dedikatzea, beharrezkoa den kudeaketa-zehaztasunik gabe eta aurrekontuan defizit handia sortuz». Gainera, «ez zuten herriaren kalitatea, garapena eta modernitatea handitzeko inbertsioa egin, aginteko lau urteetan» Udalaren arabera. «Arauen kontu hau oso gaitza dela eta nahiago izaten dela kontrako egoera horretatik probetxu politikoa atera» adierazi dute Udalek.

Amaitzeko, hasierako onespinenaren izpidetaren unea dela, eta herritarrek dagozkien iradokizunak egin ahal izateko aukera dutela azaldu dute.



Presoen aldeko ekintzak

IBARRA ▶ Asteazkenean hasi zuten borrokaldea herriko hiru preso politikoek, eta herriak ere bat egin nahi izan du protestaldiarekin. Horrela, panelak jarri dituzte herrian zehar, besteak beste protestaldiaren eguna jarriko dutelarik. Autoen bozina, suziriak eta megafonia bidezko mezuak ere entzun daitezke egunotan. Gaur, ohiko kontzentrazio egingo da 19:30ean giza katearen bidez eta bihar sinadura bilketa iragarri dute 11:00etatik aurrera herriaren sarreran. Bestalde, herenegun egin beharreko batzarra datorren asteazkenean, 20:00etan, pasa dute; Udalarekiko protesta gisa kontzentrazioa egin zuten. I. TERRADILLOS

BERASTEGI ▶

Emakumeen Eguneko afarian izen-ematea

Martxoaren 8an Emakumearen Eguna ospatuko da, eta martxoaren 5ean, afaria antolatuko dute Berastegin. Kako jatetxean egingo da eta izen emateko 943 68 31 51 edo 943 68 33 38 zenbakietara hots egin beharko da martxoaren 2a baino lehen.

BERASTEGI ▶

Podologo bisita izango da bihar goizean

Bihar, 9:30etik 12:15era podologoaren bisita izango da Berastegin, Gaztainondo jubilatuen elkartearen. Ordua hartu nahi duenak elkartearen izena eman edo 943 68 32 64 edo 943 68 32 00 zenbakira deitu beharko du.

IBARRA ▶

Bilboko manifestaziorako autobusa

Ibarrako ezker abertzaleak, bihar Bilbon 18/98 epaiketa «falsuaren» aurka egingo den manifestazio nazionalera joateko dei egiten die herritarrei. Joatera animatzen denak, ohiko lekuetan eman dezake autobusez joateko izena.

LIZARTZA ▶

Bertso-afaria bihar Txirrita elkartearen

Lizartzako Bertsozaleak elkarteak bertso-afaria antolatu du bihar. 21:00etatik aurrera izango da herriko Txirrita elkartearen eta gai librean ariko diren bertsolariak Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso izango dira.

KONTSU TABERNA (OREXA)

Ostiral gauetik igande gaur arte asteberuko menua **12 €**

Telf.: 943 68 21 54

LEITZA ▶ IKURRINA

Ikurrina kendu egin dute Leitzako udaletxeko balkoitik

Ikurren legea delakoaren ezarpenaren inguruan 10 eguneko epean ikurrina kentzeko aginduz iritsitako erabaki sendoa betetzea erabaki dute



Leitzako udaletxeko balkoia horrelaxe ageri zen atzo goizean, Leitzako ikurra Nafarroakoa alde batean eta beste aldean, ikurrinaren lekua, hutsik zituela. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Atzo goizean Leitzako udaletxeko balkoitik ikurrina kendu zuten, zuela hamar egun epaitegitik Udalera iritsi zen «behin-betiko sententziari kasu eginez», beti ere atzo bertan erabaki horren berri emanaz HITZARI helerazi zitzaion oharrak diotenaren arabera.

Oharraren bidez bestalde, Leitzako alkate den Patxi Saenzek, informazio-orria berak sinatutakoa baita, «erabaki hau gogoz kontrakoa izan arren, ondorio larriagoak ekidin ahal izateko» hartu dela, adierazi zuten.

Epaia firmea

HITZAK eskura izan zuen oharrean aitatzen den sententzia horren jakinarazpena. Nafarroako Epaitegi Kontentzioso-Administratibo delakotik igorri zuten, atzo hamar egun zituela, behin-betiko izakera duen epaia, Udala «EAEko ikurra udaletxeko balkobean jarri edukitzeagatik egiten ari den ekintza uztera» eta «aldatutako orden legezkoa berreskuratzea», kondenatuz eta horretarako 10 eguneko epea ezarri. Epaia horretan Ikurren Legea delakoa izan dute oinarrian, bertan besteak beste, herrian

bertakoa, Nafarroakoa eta Espainiakoa ez diren beste ikurrik jartzea debekatzen delarik. Horren arabera ikurrina «gurea ez den beste komunitate bateko ikurra» omen da eta ezin egon omen daiteke udal eraikinetan, ez kanpoan eta ez barrenean.

Nafarroako Gobernuak, UPNko Catalan jaunaren aginduz, 2004ko uztilaren 21ean helegitea jarri zuenez geroztik dago prozedura hau epaitegitan. Eta iritsitako epaia bete ezean, udalaren arduradun politikoa ez-gaitzea omen lekarke.

Hain zuzen ere, azken epai

hau behin betikoa omenenez, hurrengo urratsa, alegia, ez-gaitze hori, burutzeko arriskuak eragindakoa izan omen da ikurrina balkobetik kentzeko erabakia. Herriko talde politiko guztiak deituak izan ziren bilera pare baten ondoren, non talde bakoitzak bere iritzia adierazi zuen, alkatetzatik agindutako erabakia, zehazki. Aralarrek eta EAk sententzia betez ikurrina kentzearen aldeko jarrera azaldu zuten; Larrain herri plataformak, ikurrina balkobean mantentzearen aldekoa. UPNko ordezkariak ez zen izan bilera horietan.

Leitzako udaletxeko balkobean 1976an jarri zen ikurrina lehen aldiz. Garai haietako egoera politiko korapilatsua onduz, urte frankotan, jarri eta kendu ibili ziren gerora: herriak jarri, guardia zibilek kendu, berriz jarri, beste norbaitek desagertarazi...

Ikurrina jartzeko akordioa

1997an udaletxean egindako udalbatzar batean, Leitzako Udalak «ikurrina erabat balkoian mantentzeko akordioa» hartu zuen, garai haietan zinegotzi ziren hautetsien gehien-goaren aldeko bozkekin. Eta orduz geroztik halaxe egon izan da ikurrina, udaletxeko balkoian, Nafarroako eta Leitzako ikurrekin batera, hirurak. Atzo arte, geroztikako udalbatzek ere hala mantendu izan dute herritarren gehien-goaren nahiaren adierazle gisa, ez baita ahaztu behar leitzarren %76,26a abertzalea dela, beti ere azken udal hauteskundeetako datuak kontutan hartuta.

ERREAKZIOAK ▶

MARIAN ZESTAU

LARRAIN H. P.

«Azkenean erabaki politikoa da»



«Azkenean erabaki pertsonala eta politikoa da. Herritarren nahia errespetatuz, desobediendiaren bidea hartzeko aukera ere bazegoen, baina azkenean inposaketari men egin diote».

PATXI SAENZ

ARALAR (ALKATEA)

«Behartuta erabaki dugu hau»



«Behartuta gaudere erabaki hori hartzea, ondorio larriak izan daitkezkeelako. Balaiztzen jarrita, herriarentzat egokiena delakoan hartu dugu erabakia, nahiz gure gogoaren kontrakoa izan».

JUAN JOSE LAZKANO

EUSKO ALKARTASUNA

«Beste modu batera saiatuko gara»



«Herriaren desgogortzea sortu baino lehen, alkatearen ez-gaitzearekin, eta ikusita zeinen azkar joan den dena, hau erabaki da, ez gure gogoz ordea. Beste modu batera saiatu beharko dugu».

SILVESTRE ZUBITUR

UPN-KO ZINEGOTZIA

«Bandera bakoitzak bere lekua du»

«Bere garaian gure botoen kontra jarri zen, gehien-go batekin, nahiz eta ilegala izan. Nafarroan, Nafarroa Naparroa den bitartean, ikurrina ez da legezkoa».

hitza **txokoa** lagunen

ZUK ERE
lagun dezakezu HITZA

943 30 43 46

(goizeko 8:30etik gaueko 20:30era)

Astebukaera honetan **Leidorren** emango den 'EL VUELO DEL FENIX' filmerako 2 sarreraren irabazlea:

JUANJO AINTZ ITURBE HITZAren harpidedun laguntzaile irurarra.

Aspek antolatuta astelenean hilak 28ean 16:30ean **Beotibarren** jokatuko diren pilota partiduetarako bina sarreraren irabazleak diren harpidedun laguntzaileak:

- JOXE NAZABAL ETXEBERRIA (Elduain)
- IÑIGO GARCIA MAGRIÑA (Gaztelu)
- AMAIA ZABALA PASCUAL (Tolosa)

ETXANIZ - GALARZA VI.a / CHAFAEE - APEZTEGIA

GONZALEZ - PASCUAL
DEL REY - LASA III.a

BERRAONDO-BERNA / BALEZTENA-AUXKIN

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

AGENDA ▶

DEIALDIK

Aduna. KZgunean mintegiak 16:00etatik 20:00etara: segurtasuna, Outlook Express, Interneteko foroak eta Adobe Acrobat.

Alegia. 19:00etatik 21:00etara odol emateko aukera izango da sendagilearen etxean.

Amezketak. AEKko Jose Leon Otañok hitzaldia eskainiko du 20:00etan gela polibaleantean Korrikaren gainean.

Berastegi. Bihar 09:30etik 12:15era podologia joango da. Ordua Gaztainondo jubilatutako elkartean hartu behar da 16:00etatik 19:00etara (943 68 32 64, 943 68 32 02).

Gaztelu. Iturraundi taldearen bilera 19:30ean udaletxean.

Tolosa. Ezekieli antzezlanaren Leidor zineman 22:30ean. Korrikal Kulturala.

Tolosa. Tolosako Korrika Batzordearen bilera 19:00etan AEK-Arramele euskaltegian.

Tolosa. Galtzaundi Euskara Taldearen urteko batzar nagusia bihar 9:30ean lehen deialdian eta 10:00etan 2. deialdian Kultur Etxeko aretoan.

Tolosa. Gaztegunek antolatuta, DJ tailerra hasiko da 25ean 20:00etan. Izen-ematea, Kultur Etxean.

Tolosaldea. Euskal preso politikoaren aldeko bilkurak: 19:30ean Alegia, Anoeta, Ibarra eta Tolosan; eta 20:00etan Aduna, Altoa, Amezketak, Asteasu, Ikaztegieta, Leizola, Lizartza, Villabona eta Zuzurkilen.

Villabona. Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak izango da ambulategian odol ateraketak egiteko 18:30ean.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Txomin Txueka. Argazkiak. Aranburu Jauregian. Bihar azken eguna.

Tolosa. Carmelo Ortiz de Elgea. Pintura. Aranburu Jauregian.

KIROLAK

GAUR

Saskibaloia
▶ Dks-Aralar Kirolak (Nagusiak. Paco Yoldi 20:30).

Areto futbola

▶ Idiazabal-Tinta Billabona (Neskak. Zelaa 21:30).
▶ Idiazabal Gorrotxategi-Cash Converters (1. Maila A. Zelaa 22:30).

Pilota

(Gipuzkoako Elkartearen Artekoa)
▶ Anaitasuna-San Esteban 2 (Eskuz binaka. Jubenil 1. maila. Azkoitia 21:15).
▶ Aurrera Saiaz-Eibar (Eskuz binaka. Kadete 3. maila. Bidegoian 19:00).
▶ Aurrera Saiaz-Beloki (Eskuz binaka. Nagusiak 3. maila. Bidegoian 19:00).
▶ Beotibar-Zumaia 2 (Zesta-punta. Beotibar 19:30).
▶ Zumaia-Elordi Herrigintza 1 (Eskuz binaka. Kadete 3. maila. Odieta 19:45).

▶ Kuku-Elordi Herrigintza (Binaka. Kadete 3. maila. Alkartasuna 20:30).
▶ Kuku-Intza (Eskuz. Nagusiak 3. maila. Alkartasuna 20:30).
▶ Gazteleku 1-Beotibar 1 (Zesta-punta. Nagusiak. Arrate 21:00).
▶ Elordi Herrigintza-Illunpe 2 (Eskuz binaka. Kadete 1. maila. Ikaztegieta 21:00).
▶ Elordi Herrigintza-Zarautz 2 (Eskuz binaka. Jubenil 2. maila. Ikaztegieta 21:00).
▶ Lazkao 1-Behar Zana (Eskuz binaka. Nagusiak 2. maila. Ikaztegieta 22:30).

(Euskadiko Kluben Txapelketa)
▶ Aurrera Saiaz (Xabier Tellebea)-San Miguel Lizarra (Peñas) (Kadete. Finala. Azkoitia 21:30).

BIHAR

Pilota

(Garziandia Txapelketa. Eskuz binaka. Beotibar 10:15)
▶ Elizondo-Irurita (Oberena)/ Fraile-Garcia (Lizarra)
▶ Alzugarai-Mitxeo/Loiola-Yubero (Intxaurren)
▶ Dominguez-Berasaluze (Intxaurren)/Aranzabe-Galarra (Aurrera Saiaz).

(Gipuzkoako Elkartearen Artekoa)
▶ Gure Txeru-Aurrera Saiaz (Eskuz binaka. Jubenil 2. maila. Getaria 10:30).
▶ Behar Zana-Girizia (Palalarrua. Nagusiak. Amasa 12:30)
▶ Ramuntxo 9-Ametsa 1 (Pal-

goma. Nagusiak. Artaleku 14:30).
▶ Behar Zana-Hernani 2 (Eskuz binaka. Nagusiak. Gaska 16:00)
▶ Intxaurren-San Esteban 1 (Eskuz binaka. Jubenil 1. maila. Intxaurren 17:00).
▶ Tartaloetxe-San Esteban (Eskuz binaka. Kadete 2. maila. Zegama 17:30).

Futbola

▶ Tolosa-Zugatzarte (Jubenilen Euskal Liga. Berazubi 16:30).
▶ Antiguoko-Tolosa (Kadeteen Euskal Liga. Berio 12:00).
▶ Mondragon-Tolosa (Goren maila. Atxabalpe 16:30).
▶ Beti Ona-Tolosa B (Lurraldeko 1. maila. Fanderia Errenteria 19:15).
▶ Beti Onak-Aurrera (Lurraldeko 1. maila. Atarrabia 15:45).
▶ Azkuene B-Danena (Lurraldeko 2. maila. Igoera fasea. Trintxerpe 15:30).
▶ Intxurre-Sanpedrotarra (Lurraldeko 2. maila. Igoera fasea. Elorri 16:30).

Areto futbola

▶ Hegoalde-Zaragoza 2000 (Ohorezko Maila. Belabieta 19:00).
▶ Ibarra-Soloarte (1. Maila Nazionala A. Belabieta 18:30)
▶ Laskorain-Inter Euskal Sofa (1. Maila Nazionala B. Berazubi 17:00).
▶ Lauburu-Gsi Bilbao EHU (Jubenilen Liga Nazionala. Belabieta 16:15).
▶ Transportes Lakunza-Gure

Txokoa (Autonomikoa. Olaederra 18:30).
▶ Eskolapioak B-Euromar (1. Maila A. Eskolapioak 16:30).

Futbol 7
▶ Lanbroa Dickens-Akelenea (2. Maila. Beasain 1. 20:00).
▶ Fermax Instal-Bar Shanti K. (2. Maila. Felix Garin 1. 18:00).

ETZI

Futbola
▶ Amaro-Zestoa (Lurraldeko 2. maila. Kopa. Elorri 11:45).
▶ Behobia-Billabona (Jubenil 1. Maila. Gal 14:45).
▶ Hernani-Intxurre (Jubenil 1. Maila. Zubipe 16:30).

Areto futbola

▶ Ordizia Gamesa-Laskorain (Neskak. Kopa. Majori 10:00).

Futbol 7

▶ Bataplan-Ibarrako Gazte Asanblada (1. Maila. Felix Garin 1. 13:00).

MUSIKA

Tolosa. Luis San Sebastian klarinetejolea eta Fernando Gonzalo organojolea 20:00etan Santa Maria parrokiaren.

Tolosa. Xabier San Sebastian. Bonberenean 22:30.

Villabona. Mikel Markez Gurea aretoan 22:30ean.


ZINEMA

Leizola. *Vias cruzadas.* 22:30ean zineman.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Lander Mujika (Asteasu). Gaur 6 urte beteko ditu. Zorionak portokoko eta muxu handi bat. Ebeko partetik.



URTE ASKOAN
Haritz Goenaga Zelaia (Belautza). Atzo 3 urte. Ondo pasa Belautzako eta Ereizigo familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Meltxor Otamendi. Zorionak familiaren partetik, batez ere Asier, Jaione, Aitor, Aitzol, Maialen, Izadi eta Ekaitz bilobak. Aupa aitona!



URTE ASKOAN
Maialen Etxeberria Izagierre. Gaur urtebete. Zorionak aitaboa, amaboa eta familia osoaren partez.



URTE ASKOAN
Zorionak Gaizka! Muxu haundi bat familiaren partetik et batez ere Unaiaren partetik.



URTE ASKOAN
Eider (Lizartza). Gaur 6 urte. Zorionak aitona-amonena eta osabaren partetik.



AUPA PELLO ETA JULEN!
Jo ta ke irabazi arte! Gaztebetetik.



URTE ASKOAN
Eider (Lizartza). Gaur 6 urte. Zorionak aitona-amonena eta osabaren partetik.



EUSKAL PRESOK BORROKAN - ELKARTASUN MEZUAK
Aupa Iñigo, Pello, Eider, Ekaitz eta Minde. Osaba Iñigo, asko maite zaitugu. Leire, Ainara eta Mikel. Eta beste! ere muxu bana Billabonatik.